



## envejezANDO

Hiriak, arkitektura, espazioak eta eredu sozialak, adinekoen neurria

## HAUSKORTASUNA

Irungo programa pilotuaren balantze positiboa



## AZKOITIA

Egoitza berria, eta Tutoretza eta Ahulezia arloetako programak

# LABURPENA

3. ORRIALDEA  
**2017ko gure jarduerak**  
Hurkoaren jarduerari buruzko datu nagusiak

4. ORRIALDEA  
**Aurkezpena**  
Hurkoa eta Hurkoa Zainduz erakundeetako presidenteen aurkezpen-hitzak

6. ORRIALDEA  
**Paz Martín Rodríguezi elkarrizketa**  
Arkitektoa, eta arkitektura, hirigintza eta zahartzea arloetako ikertzailea

8. ORRIALDEA  
**Solasaldia Blanca Morerarekin**  
Mediku psikiatra, Hurkoa Patronatuko kidea eta bioetika asistentzian aditua

10. ORRIALDEA  
**Hurkoa**  
Eguneko zentron, Arreta tutelarraren eta hauskortasun arloetan Hurkoak egindako jarduerari buruzko datu nagusiak

16. ORRIALDEA  
**Langileak**  
Hurkoako lau langilek beren lanari eta motibazioei buruz hitz egin dute

17. ORRIALDEA  
**Boluntarioritza**  
Boluntarioentzako prestakuntza espezializatu

21. ORRIALDEA  
**Egoitza berria**  
Hurkoaren egoitza berriaren inaugurazioa Azkoitian

22. ORRIALDEA  
**Urrezko H**  
José Félix Martí-Massó eta Josu Ormazabali eman zaie 2017ko Urrezko H saria, egindako lana aitortzeko



www.hurkoa.eu

**Zerbitzu orokorrak**  
Morlans Pasealekua, 13 behea  
20009 Donostia  
Telefonoa 943 468 956  
Faxa: 943 466 714  
idazkari@hurkoa.eu

**Arreta tutelarra**  
Morlans Pasealekua, 13 behea  
20009 Donostia  
Telefonoa 943 468 956  
Faxa: 943 466 714  
idazkari@hurkoa.eu

Gernikako Arbola Pasealekua, 16  
20006 Donostia  
Telefonoa 943 468 956

Ferrerias kalea, 32 behea  
20500 Arrasate  
Telefonoa: 943 770 938

Geltoki, 7  
20301 Irun  
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea  
20720 Azkoitia  
Telefonoa 943 468 956


**“Nuestra Señora de las Mercedes”**  
**Eguneko Zentroa**  
Nafarroa Hiribidea, 31  
20013 Donostia  
Telefonoa: 943 293 111  
Faxa: 943 322 957  
cdmercedes@hurkoa.eu

Aldizkari honetan erabilitako irudi batzuk Freepik bidez sortu dira


## Laguntzaileak



## NON GAUDE



## FINANTZAKETA



## AURKEZPENA



# Hurkoako baloreak

1990. urtean Elizbarrutiko Caritasen ekimenez tutoretza-erakunde gisa sortu ginenetik urrats ugari eman ditugu hauskortasun-, mendekotasun- eta babesgabetasun-egoeran daudenei arreta eta babes egokia emateko. Hasiera batean hurbileneko adineko pertsonen Caritas ingurukoak tutoretzan oinarritu ginen, baina 90eko hamarkadan jada eguneko zentroak sartu ziren Hurkoan eta horrek gure jarduera-alorra zabaldu zuen. Horrez gain, patronatuak gaixotasun mentalak dituzten pertsonen tutoretza

eta babesa behar dutenen tutoretza gure gain hartzeko erabakia hartu zuen gure jarduna berriro ere aberastuz. XXI. mendearen bigarren hamarkadan, errealitatetik datozen datuek argi eta garbi erakusten dute mendekotasun- eta babes-egoerei behar bezala erantzuteko esku-hartzea aurreratatu egin behar dela. Ezin da ezgaitasuna iritsi arte itxaron lehen urratsak emateko: beharrezkoa da “hauskortasun” izena eman diogun eremu ilunantz horri gehiago erreparatzea.

## AURKEZPENA



José Luis de la Cuesta eta Josu Ormazabal, Hurkoa eta Hurkoa Zainduz fundazioetako presidentek.

Lehen azterketa egin du bereziki xede horretarako sortutako lantaldeak eta laster argitaratuko dira horren emaitzak. 2016. urtean programa pilotu bat jarri genuen abian Irungo Udalarekin batera eta 2017an oso ebaluazio ona izan du erakunde bien eta Hurkoako boluntarioen eta langileen aldetik eta, beraz, mendekotasun- eta ezgaitasun-egoeretatik gertu dauden pertsonen bizitzak hobetzeko balioko du. Irungo adibidearen harira (2018an lanean jarraitzen du), 2017ko urrian Azkoitiko Udalak utzitako egoitza inauguratu genuen udalerrian hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko eta tutoretzapeko pertsonen eta eskualdeko familiei laguntzeko. José Félix Marti Massó doktoreak egin zuen inaugurazio-hitzaldia eta hari eman zitzaion Hurkoako “Urrezko H” saria. Astiro baina beti ari, Hurkoan hauskortasunarekin lotutako esku-hartze eredia lantzen dihardugu; erakundeen laguntzarekin egin behar dela uste dugu eta, bereziki, udal-agintariekin eta oinarrituko zerbitzuekin lankidetzari estuan. Beste urte batez gaitutako gure langile eta boluntarioek osatutako taldearen konpromiso handia azpimarratu eta eskertu behar dugu: tutoretza-beharrak hazten jarraitzen duten egoera honetan

tutoretza-alorrak, hain zuzen ere, % 1 egin du gora artatutako pertsonen kopuruan 2016. urtearekin alderatuta eta gaixotasun mentalak dituztenen ehunekoak ere gora egin du, 2016an guztizkoaren % 56 izatetik 2017an % 58 izatera igaro da badakite ilusioa gordetzen eta indarra ateratzen bide horretatik jarraitzeko; patronatuaren (eta Caritasen) aburuz aztertzen eta jorratzen jarraitu behar dugun bidea da. Nuestra Señora de las Mercedes eguneko zentroko lantaldeek ere aurrera pausak ematen jarraitu dute 2017an esku-hartze prozeduren eta sistemen etengabeko hobekuntzan eta hori bereziki islatu da erabiltzailearekin eta familiarekin adostutako Arreta eta Bizitza Planaren diseinuan, baita zaintzaile nagusiaren karga baloratzerakoan eta dagokion kasuetan familiei bideratutako helburuak BAPn (Banakako Arreta Plana) txertatzerakoan ere. Erakunde arteko lankidetzari dagokionez

aipamen berezia merezi dute 2017an Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarekin adostutako hitzarmenek, tutoretzaren alorrean baliabideak emateko irizpide eta baremo zorrotzagoak ezartzen dituztenek; horrekin espero dugu etorkizunean gabeziak saihestea. Nuestra Señora de las Mercedes eguneko zentroari dagokionez, aldundiarekin duen kontratu-programaren berrikusketak astean zehar itundutako 61 plaza izatera iristea ahalbidetu du. Aurreko ekitaldietan bezala, 2017ko honetan ere hauen guztien laguntza eskertu nahi dugu: Kutxa Fundazioa, SINENOR enpresa, Caritas, Donostiako eta Arrasateko udaletako Gizarte Ongizate zinegotzigoak eta Donostiako Probintzia Kanonikoko Karitatearen Alabak. Azkenik, Irungo M<sup>a</sup> Teresa Olazabal Zabaleta andrearengandik jasotako legatu garrantzitsua azpimarratu nahi dugu.

*Azaroan Josu Mikel Ormazabalek, Hurkoako diruzainak eta Hurkoa Zainduz erakundeko presidentek, arrazoi pertsonalak direla-eta, bere karguak utziko zituela eta patronatuko kide izateari utziko ziola iragarri zigun. Urte hauetan guztietan Hurkoarekin izan duen erabateko dedikazio, egindako lan arduratsu eta izandako konpromiso eredugarria eskertzeko, Gabonetako ospakizunean urrezko “H” oso berezia eman genion. Hurkoako kide eta adiskide guztien izenean gure maitasun eta adiskidetasun guztia adierazi nahi dizugu, Josu.*

## ELKARRIZKETAK

Paz Martín  
Arkitektoa

# “Adinarekiko errespetuak gure orainaren parte izan behar du”

Paz Martín Rodríguez arkitektoa da, baita adineko pertsonak hartu behar duten espazioaren eguneratze arkitektonikoa eta hiri-eguneratzea aldarrikatzen duen ahotsik aktiboenetakoa bat ere.

Gaixotasun degeneratiboa batez aita hil zitzaionean jabetu zen adineko pertsonak dituzten zailtasun urbanistikoak.

Haren ikuspegitik, badirudi zahartzaroa, gaixotasuna eta gainbehera eremu fisiko jakin batzuetara atxikita daudela, zeinak bereiz eta, askotan, hirien periferian baitaude, “gaztaroaren, mugikortasunaren eta arrakastaren bertuteak soilik goraiatzen dituen gizarte batean zahartzaroak eta hari buruzko ideiak lekurik ez balute bezala”.

Horregatik guztiagatik, bere bizitza profesionala erabat aldatu zuen 2015. urtean, eta BBVA fundazioak ikertzaile eta sortzaile kulturalentzat ematen dituen Leonardo beketakoa bat eskatu zuen arkitekturari eta zahartzeari buruzko ikerketa bat egiteko. Ikerketa horren emaitza “envejezANDO. Diseño para Todos: Arquitectura y Tercera Edad” erakusketa ibiltaria da. Erakusketa horretan, arkitekturak benetako beharrei erantzuteko irtenbideak sortzeko duen balioa islatzen du, eta orain arte ikusezin zen talde baten berezitasunen aintzatespena sustatzen du, adinarekiko errespetuak gure orainaren parte izan behar duela ulertarazteko.

## Nola sor daiteke adineko pertsonentzako ingurune atseginagoa?

Adineko pertsonentzako ingurune atseginago bat sortzeak, lehenik eta behin, pertsona horiek ez baztertzea dakar, eta, askok uste dutenaren kontra, uste baino errazagoak diren irtenbideak edo gastu handirik eragiten ez dutenak eskatzen ditu. Baztertu ordez zaintzen duen hiri bat adineko pertsonentzako hiri on bat da.

Norberaren etxean zahartzea da zahartzaroa osasungarria eta ezin hobea izan dadin sistemarik onenetako bat; horregatik, ekonomikoki bideragarria den moduren batean egin daitezkeen egokitzapen oro gomendagarria eta beharrezkoa da.

Nire ustez, behar horietara egokitutako etxebizitza berriak eraiki behar dira (bainugela handiagoeekin, gela malguagoeekin, argiztapen onarekin eta bista ederrekin), baina, hori bai, dagoeneko adineko pertsonak bizi diren lekuetan, beren ingurunean bizitzen jarraitzeko aukera izan dezaten.

## Benetan egin al daiteke hori adineko pertsonak traba egiten dutela dirudien gizarte batean?

Aurreikuspen estatistikoak betetzen badira, 2050. urtean 65 urtetik gorakoa izango da Espainiako biztanleriaren % 34a; demografian tsunami gris deitu izan zaiona da, eta tsunami bat gelditu ezin den indar kontrolaezin bat da.

Adineko pertsonak ez dira banako pasiboak, eta ez dute hala izango balira bezala jokatzeko; horren ordez, beren bizitzak nola bideratu nahi dituzten dakiten pertsona oso aktiboak dira. Ahalduntze hori geroz eta agerikoagoa da eta ondorio jakinak ditu eta izango ditu, gizarte-mailan ez ezik, hiri-mailan eta arlo arkitektonikoan ere.

Nola gobernatu behar du alkate batek bere hautesleen erdia baino gehiago 65 urtetik gorakoak direnean? Zer motatako etxebizitzak eraikiko dituzte sustatzaileek erosle izan daitezkeen erdiak pertsona adinekoak edo oso adinekoak badira?

## Ze espaziori eragiten diete desgaitasun progresiboek hiri batean, etxe batean eta gizarte- eta familia-ingurunean?

Hirietan, espaloi eta kaleei eragiten diete nagusiki, zeinak ez baitaude batere ondo prestatuak biztanleria hauskor horrentzat. Bankuak falta dira, espaloiak estuak dira eta egoera txarrean daude eta, beraz, oso erraza da erortzea, ez daude ondo argiztatuak, seinaleak falta dira (desorientatzeko arriskua dakar horrek), eraikin publiko eta rako sarbidea ez da erraza (eraikineraren sartzeko ez ezik, informazioa lortzea ere zaila da batzuetan).

Etxebizitzetan, kanpora begira, arazo nagusia atarian eta eremu komunetan egoten da, non erabiltzaileak kanpora irtetea zailtzen eta, batzuetan, eragozten duten koskak eta eskailerak egoten baitira.

Etxeen barruan, etxe gehienetan oraindik konpondu gabeko arazoa komuna da eta haren ondoren, sukaldia; gune horietan gertatzen dira adineko pertsonen istripu eta erorketa gehienak.

Familia- eta gizarte-arloan, desgaitasunak bakartzea dakar berekin, eta, horregatik, oso garrantzitsua da pertsona horiek belaunaldi arteko jardueren bidez integratzea; adibidez, badira eguneko zentroak dituzten haurtzaindegiak, baita gazteen eta adinekoen zentroak ere, oso ondo funtzionatzen dutenak eta bi aldeentzat onura handiak dituztenak.

## Zer egin daiteke adineko pertsonak denbora gehiagoz bizi daitezkeen beren etxeetan?

Etxebizitza ahalik eta seguruena bihurtzea; horretarako, badira istripuak

saihesteko har daitezkeen zenbait neurri, hala nola igarobideetako oztupoak eta alfonbrak kentzea, bainuontziaren ordez dutxa jartzea, sukaldia eta komuneko zoruak zoru ez-labaingarriekin ordeztzea eta etxe osoan argiztapen hobea jartzea.

Oso garrantzitsua da, halaber, bizilagunekin igogailua jartzeko aukera aztertzea, halakorik ez balego, baita ataritik kalera irteteko arrapala ere.

Zainketa-sare bat ehunduz hirian bakardadea saihestu behar da, hau da, auzoan, bizilagunen jardueran, kiroldegian, saltoki txikietan, auzoko tabernan eta abarretan parte hartu, eta bizilagunen balioak berreskuratu (behar duenari lagundu, gaixorik



**Hauskortasun-egoerak agertzen direnean, ingurunerik seguruena ingurune ezaguna da**

dagoenari bisita egin, ezezagunak ere agurtu...). Hori guztia aurrekoa baino garrantzitsuagoa da ia; izan ere, hauskortasuna agertzen denean, ingurunerik seguruena ingurune ezaguna da.

## Bada adinekoentzako etxebizitza-formula bereziki interesgarririk?

Ez dago formula berririk, pertsonak beren zahartzaroa bizitzeko egindako eskaera berriak baizik. Zaharren egoitzaren eredu zaharkitua geratu da independente izan nahi duten pertsonentzat, eta bizikidetzaren eredu berriak probatzen hasi dira. Espainian gutxi gorabehera berritzaileak dira eredu horiek, baina tradizio handia dute Europako beste herrialde batzuetan.

Gaur egun moda-modan daude kooperatiba-erako zaharren etxebizitza

## ELKARRIZKETAK

autogestionatuak, zaharren cohousing deritzenak, non adineko zenbait pertsona elkartzen baitira modu independentean bizitzeko aukera emango dieten eta beren beharretara egokituta dauden zerbitzuak dituzten etxebizitzak eraikitzeko.

Ni neu integrazioaren aldekoagoa naiz eta askoz interesgarriagoa iruditzen zait belaunaldi arteko etxebizitza-eredua, gazteak eta zaharrak zerbitzu komunak partekatzen dituzten etxebizitza independenteetan bizi direnekoa. Horrek askotariko interesen arteko negoziazioa eskatzen du, baina belaunaldi arteko babesa ere ematen du.

## Arkitekturaren eta hirigintzaren ikuspegitik desberdin pentsatzen ari al gara gizarte berri baten beharrei erantzuteko?

Pixkana-pixkana, norabide zuzenean aurrera egiten hasi gara. Adineko pertsonentzako hiri lagunkoien programari atxikita dauden hiri-kopuruak gora egin du, eta horrek esan nahi du adineko pertsonen errealitateaz eta haien beharrez jabetzen hasi direla udaletako hiri-agendetan.

Horrek esan nahi du zahartzaroaren hiri-errealitatea eta errealitate arkitektonikoa geroz eta agerikoagoa dela, eta zenbait gizarte-eragileren interesa pizten hasi da, nire kidegoarena, besteak beste. Arazoa da oraingoz gutxi garelako horrekiko konpromisoa hartu dugunak eta gainera, banaka egin dugu beti.

Oraindik egin ez dena benetako talde-eztabaida bat da, non gaia datozen 30 urteetarako erronka gisa jorratzen den, eta hori da arazoa; eztabaida hori gabe ezin dela esan ohiko erantzunak ematen diren ala ez. Gaur egun, uste dut irtenbide oso partzialak ari direla garatzen.



**Integrazioaren eta belaunaldi arteko etxebizitzaren aldekoagoa naiz**

## Blanca Morera

Blanca Morera mediku psikiatra da, auzitegi-psikiatriako masterra egin zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean; eta Hurkoa fundazioko Patronatuko kide da 2009. urtetik. 2002. urteaz geroztik, Donostialdea Gipuzkoako ESIn integratuta dagoen Etika Asistentzialeko Batzordean parte hartzen du. Zenbait gizarte- eta osasun-zerbitzutako taldeentzat Bioetikako eta Auzitegi-psikiatriako irakasle da, baita zenbait libururen egilekide ere, hala nola hauena: *Ética y Psiquiatría, Hechos y Valores en Psiquiatría eta Maltrato en personas mayores.*



# “Bioetikak

*erabaki zuhurrak hartzen laguntzen du”*

**Nola defini daiteke asistentziaren bioetika?**

Nolabaiteko asistentziako laguntza ematen diegun eta balio-gatazkak dituzten pertsonekin erlazioatutako egoeretan erabaki zuhurrak hartzera bideratutako gogoeta- eta metodo-multzoa da. Normalean ziurgabetasun handia eragiten duten erabakiak dira; izan ere, pertsona bat artatzen dugunean, ez dakigu dena hari eta haren inguruneari buruz. Beraz, dakigun horrekin ahalik eta erabakirik onena hartzen dugu.

**Zer garrantzi du bioetikak Hurkoarenaren pareko jardueratan?**

Bioetikak interes handia du Hurkoarentzat, asistentzia-jardueran sortzen diren balio-gatazkei nola heldu erabakitzen laguntzen baitu. Funtsean, kasu bakoitzeko gertaerak eta arriskuan dauden balioak aztertzeke bioetikaren metodoa deliberazio-ikuspegi batetik aplikatzeko dinamika bat garatzen ari gara, erabaki zuhurrak hartu ahal izateko. Arazo bat mahai gainean jartzen badugu eta deliberazio-metodo bat erabiltzen badugu, beste pertsona batzuek parte hartzeak hasieran kontuan hartu ez diren zenbait gauza jakiteko aukera ematen du.

**Nola jakin daiteke zer den arreta eta**

**asistentzia behar dituen pertsona batentzat onena?**

Guk gaitasun mugatua duten eta, hain zuzen, askotan legezko ezgaitasuna duten pertsonekin egiten dugu lan. Baina ez zaigu lege-alderdia interesatzen, benetakoa baizik, eta pertsona horiek erabakiak har ditzakete askotan... Kontua da zenbateraino sustatzen dugun haiek beren autonomia baliatzea eta zenbat babesten ditugun. Horrek arazoak eragiten ditu egunero, eta banaka jorratu behar ditugu arazo horiek, pertsona bakoitzarentzat. Gizakiok, arazoren bat dugunean, ezbaierako joera dugu, zuri edo beltz ikusten

## ELKARRIZKETAK

dugu egoera; hau da, pertsona bati bere erabakiak hartzen utzi behar diogu, edo babestu egin behar dugu... baina hark erabakia hartzea errazteko moduak daude, erabaki hori, era berean, hura babesteko modu bat izan dadin. Hori azpimarratzen saiatzen gara.

**Nola lortzen da pertsonen babesaren eta autonomiaren arteko oreka?**

Kasuan-kasuan, unez une. Arreta handiz jokatu behar da, argi izan behar baitugu zein den pertsonen gaitasuna eta zertarako hartuko den erabakia. Ez dira gauza bera eguneroko bizitzako erabaki txiki bat hartzeko gaitasuna (nola jantzi nahi duen, zer jatea gustatzen zaio eta abar) eta gai garrantzitsuak joratzeko behar den gaitasuna. Adibidez, hurrei zenbait erabaki hartzeko gaitasuna eman ohi diegu. Beraz, Hurkoaren kasuan, tutoretzapean dagoen pertsona bati laguntzen ari diren profesionalak zenbait ezagutza espezializatu izan behar dituzte pertsona horrek erabaki jakin batzuk har ditzakeen edo ezin dituen hartu aztertzeke. Egoera bakoitza aztertu behar da, eta, zalantzarik izanez gero, hausnartu. Errazena da pertsona batek desgaitasunen bat badu gauza guztietan ordezkatuko dugula pentsatzea eta guk hartuko ditugula hari dagozkion erabakiak.

**Egokiena ordezkapena eta bera gauzatzeko modua mugatzea al da?**

Bioetikari esker asko aldatu den beste gauza bat ordezteko modua da. Lehen, ordeztea, gauzatu behar zuenak hala irizita egiten zen, eta, hain zuzen, familiek hala egin izan dute bizitza osoan, afektua eta tutoretzapean dagoen pertsonaren ongizatea oinarri hartuta. Pertsona bat bere kordean ez bazegoen erabaki mediko bat hartzeko, familiakoren batek hartzen zuen erabakia haren orde. Orain, erabaki onena zein den pentsatzen da, zer erabakiko lukeen pertsona horrek erabakitzeke ahalmena izango balu. Ezgaitua izan den pertsona batekin, beti ez dugu izaten zer nahi lukeen jakiteko behar beste erreferentzia, baina batzuetan bai. Hurkoan urte askoan laguntzen zaie pertsonari eta kasu batzuetan, arretaren

hasieran, narriadura ez da hainbestekoa. Une horretan hasi behar da pertsona horri buruzko zenbait gai aztertzen, baita desgaitasun handiagoa duen uneren bat iristen bada zenbait egoeratan zer arreta jaso nahi lukeen ere.

**Mendekotasuna edo desgaitasuna ez dira pertsonen autonomiaren bukaera?**

2006ko New Yorkeko hitzarmena, hain zuzen, ezgaitasuna ez zela autonomia-galera baizik, autonomia ikusteko beste modu bat azpimarratzeko. Eta, zentzu horretan, balio berezia ematen zitzaion erabaki-hartzea ordeztu beharrean erabakiak hartzen laguntzeko estrategiak diseinatzeko gaitasunari. Hurkoan, hauteman dut tutoretzapean dauden edo desgaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten dutenek pertsona horiek nahi dutenari dagokionez sentikortasun handia dutela, eta ahal den neurrian nahi hori errespetatzen saiatzen direla.

**Gauzak ondo egiten ari al gara geroz eta zaharragoa den gizarte batentzat?**

Ni oso ezkorra naiz horretan. Kontzeptualizazio-arazo bat daukagu. Adineko pertsonak zaindu egin behar direla, lekua egin behar zaiela eta abar saltzen dugu, eta egia da ez dutela lekurik, “zahar gazteak” edo “zahar aberatsak” ez badira. Eta horiek biztanleriaren ehuneko txiki bat baino ez dira. Gainerakoek ez dute lekurik. Benetan gertatzen ari dena da, zaintzailea desagertu den familia-nukleoak ditugunez, gizarte-zerbitzuak eta fundazioak direla nolabaiteko asistentzia behar duten pertsonak artatzeaz arduratzen direnak. Eta, gainera, pertsonen bizitza kardiobaskularra luzatzen ari garenez, bakardade-maila lehenik, eta desgaitasun-maila, ondoren, oso

altuak dira mendebaldeko gizarteetan. Uste dut zaharra izatea balio-galera bat dela gure gizartean, zaharrak lehen jakinduria-iturri ziren arren... Orain baino hobeto jardun ginen horretan lehen. Gure zaharrek lekua zuten. Bada zer bait ona, dena dela, zahartzarora komunitatean bizitzeko ereduetan pentsatzen ari baikara. Urbanizazio txikien zenbait proiektu mugitzen ari dira eredu pertsonalizatuagoak bilatzeko.



“  
**Kontua da zenbateraino sustatzen dugun pertsonen beren autonomia baliatzea eta zenbat babesten ditugun**

JARDUERA

# Motibazioa, garrantzitsua edozein adinetan

Goizero “Nuestra Señora de las Mercedes” Eguneko Zentrora joaten diren pertsonak era askotako jardueraz betetako eguna izaten dute aurretik, eta horrek lagundu egiten die entretenitzen, beren gaitasunak zaintzen, beste pertsona batzuekin harremanak izaten eta, batez ere, “zerbaitetarako balio dutela sentitzen”, Mertxe Silvok, zentroko zuzendariordeak, azaldu duenez. Horretarako, Hurkoaren Eguneko Zentroak erabiltzaile bakoitzaren egoerara moldatutako jardueraprograma bat garatzen du egunero, eta programa horretan sartzen dira laborterapia (josteko lanen bidezko terapia, zentro honetan), psikomotrizitatea, ezagupenaren estimulazioa, memoria-lantegia, eskulanak, jolasak, etab. Hori guztia motibazioa gal ez dezaten.

Funtsezkoa da goizero Eguneko Zentrora joaten diren pertsonak gustura egotea eta mota bateko baino gehiagoko jarduerak egitea, pertsona horien gaitasunen arabera, betiere. Horregatik, “Nuestra Señora de las Mercedes” zentroko hiru solairuei esker, erabiltzaileak beren egoeraren, trebetasunaren eta zaletasunaren arabera elkartu ditzakegu.

Jardueraprogramak aldatu egiten dira taldetik taldera, eta erabiltzaileen gustuetara moldatzen dira, baina kasu guztietan erabiltzaileek egun atsegina izatea ez ezik, egunean zehar zenbait zeregin izatea ere bilatzen da; atsedenerako tarte bat barne, siesta egiteko orduan.

Mertxe Silvok azaldu duenez, “ekintza adierazgarriak egiten dituzte eta, horren bitartez, zerbaitetarako balio dutela sentiarazten ahalegintzen gara, bai eta pertsona bakoitzak duen alderdi positiboena bilatzen ere, indartzeko; jarduera guztiak ez dira guztientzat... Hasteko, gaitasunen, gustuen eta nahien araberakoak dira”.

Zentroko emakume erabiltzaileek gehien baloratzen duten jardueretako bat laborterapia da (josteko lanen bidezko terapia, zentro honetan): egunero egiten da, eta puntu- edo kakorraz-lanak egitean datza. “Mantak, galtzerdiak, bufandak, haur-oinetakoak, jakatxoak, txanoak eta abar egiten dituzte, eta motibazioa lantzen laguntzen die;

izan ere, bukatu egin nahi izaten dute, familiakoren bati oparitzeko, arrazoi jakinen bat dela medio eta familien eguneko erakusketarako”, zehaztu du Mertxe Silvok. Gizonak normalean ez dute puntua egiten, eta tarte horretan beste zeregin batzuetan aritzen dira (pintatzea edo eskulanak, esaterako).

Gainera, bazkaldu aurretik egunero jarduerabategoten da: psikomotrizitatea, ezagupenaren estimulazioa, musika-terapia edo erlijiozko programa. Horretaz aparte, arratsaldeetan eskulanak, memoria-lantegia, kantu-lantegia, bingoa, pelikula edo kartak egoten dira.

Memoria-lantegian, egun batzuetan

aspaldiko memoria lantzen da... Ezagunak gerta dakizkiekeen objektuak ekartzen ditugu, eta haien esperientziei eta objektuek gogorarazten dienari buruz hitz egiten dugu. Baina gaur egungo gauzeekin zerikusia duten jarduerak ere egiten dira, erabiltzaileak bizi izan diren lekuetako gaur egungo argazkiak edo beste mota bateko informazioak bilatuz Interneten, memoria eta oroitzapenak estimulatuzko. Mertxe Silvok dioenez, “zenbakiak, idazmena, asmakizunak, esaera zaharrak eta abar lantzeko jarduerak ere egiten dira, guztia pertsona horien egoerara eta bizitzara moldatuta, zer gaitasun dituzten eta zer zailtasuni aurre egin diezaioketen kontuan izanda. Hizkuntza, kalkulua, orientazio espaziala... lantzen ditugu”.

Jarduera horiez gain, badira zentrora joaten diren pertsonen ematen zaizkien zenbait zerbitzu ere, hala nola, ile-apaindegia, podologia eta fisioterapia. Paseoak egunero ere ez dira inoiz falta izaten: eguraldi ona egiten duenean, lorategian egiten dira, oso garrantzitsua baita adineko pertsonak ibiltzea eta mugitzea, ahal den neurrian.

Eta horri guztiari Donostia eta inguruetara irteerak, festak eta zentrora kantatzera edo antzeztera hurbiltzen diren pertsonen bisitak gehitu behar zaizkio; izan ere, musika duten jarduerak interes handia pizten dute zentroko erabiltzaileen artean, bere inguruarekin harremanetan mantentzen dielarik.



JARDUERA

## EGUNEKO ZENTROA

### ERABILTZAILEEN PROFILA

#### Astelehenetik ostiralera

**86** Erabiltzaile

% **78** Emakumezkoak

**84** Batez besteko adina

% **80** Diagnostikatutako dementzia

#### Asteburuak

**63** Erabiltzaile

% **75** Emakumezkoak

**85** Batez besteko adina

% **86** Diagnostikatutako dementzia

### ZERBITZU NAGUSIAK

Gizarte-lana  
Fisioterapia  
Erizaintza  
Garraioa  
Podologia  
Ile-apainketa  
Psikomotrizitatea  
Estimulazio kognitiboa  
Laborterapia eta eskulanak  
Animazio soziokulturala  
Musikoterapia  
Erljio-ekitaldiak



“Tutoretza bat ardura handia da”

Manuel Castivia, Encarna Zárate de Andrés emaztearekin.

Manuel Castivia bost senideko familia bateko gazteena da. Duela zenbait urtetik, bere anai-arreba zaharragoei lagundu die adinak eta zenbait gaixotasunek eragindako egoera zailetan. Zenbait egoeratan familiari emandako laguntza horretan, bere gain hartu du bere 88 urteko arrebaren tutoretza; arreba egoitza batean bizi da, eta gaixotasun mental bat du. Egiteko horretan, Manuelek dio ezinbestekoak izan direla Encarna emaztearen esku-baltasuna eta laguntza eta Hurkoak emandako babesa.

Zaharretan gazteenak izateak, familiaren euskarri izatea eragin die Manueli eta Encarnari, osasunari, afektuari eta laguntzari lotuta Manuelen anai-arreba zaharragoek bizi izan dituzten zenbait egoeratan. Gaur, 88 urteko arreba baten legezko tutore dira biak; gaixotasun mental bat izan arren, duela bost urtera arte bakarrik bizi izan da arreba hori.

Manuelen arreba Esperanzaren gaixotasunaren bilakaera, prozesu luzea eta zaila izan da. Manuelek berak dioenez, “mutikoa nintzenetik ohartzen nintzen nire arreba, zeina ni baino 12 urte zaharragoa baita, ez zegoela ondo”. Urteek aurrera egin ahala, haren egoerak okerrera egin du pixkanaka, eta, horrez gainera, Manuelek dioenez, “izaera gogorra du eta laguntza oro jasotzeari uko egin izan dio”. Horren ondorioz, ez zituen behar bezala betetzen zegozkion tratamendu medikoak.

Duela bost urte, etxeko eskaileretan erori zen eta orduan lortu zuten bere bizitza ordenatzen eta antolatzen laguntzea. Erorketak eragindako lesioak sendatu bitartean osasun-zentroan egin zuten

egonaldian, haren portaera zela eta, osasun-profesionalek iradoki zioten Esperanzari ezin zuela bere etxean bakarrik bizitzen jarraitu. Une hartatik aurrera, egoera nabarmen aldatu zen. “Ordura arte —dio Manuelek— medikuarekin edo gizarte-langilearekin hitzorduren bat genuen bakoitzean, nabarmen uzten gintuen: txukun-txukun agertzen zen eta botika guztiak hartzen zituela eta bizitza erabat ordenatua zuela ziurtatzen zuen; beraz, ezin genuen ezer egin”.

“Urte askoan —eranstean du Encarnak— bere etxean laguntzen saiatzen ginen, arropa txukuntzen, otordua k antolatzen, hartu behar zituen botikak... baina oso mesfidatia zen.

Orain egoitza batean dago, otordua eta jarduerak modu ordenatuan egiten ditu, hartu behar dituen botikak behar bezala ematen dizkiote, eta han dagoenetik asko hobetu da bere egoera”. “Une horretan —gogoratzen du Encarnak— Hurkoaren eta gauzak epaitegi baten bidez eginda Esperanzari behar bezala laguntzeko genituen legezko aukeren berri izan genuen”.

“Egiten hasi ginen urratsek familiako kide batzuen gaitzespena eragiten zuten, nahiz eta espezialista batek egindako txosten bat genuen, erabakitze gaitasunik ez zuela adierazten zuena”, dio Manuelek. Egoera hark ezgaitze-prozesu bati ekitera eramanez zituen Manuel eta Encarna, Esperanzari ahalik eta modurik onenean laguntzeko.

“Aldi horretan guztian —diote—, Hurkoaren egitekoa oso garrantzitsua

izan zen guretzat: lehenik eta behin, ulertuak sentitu ginen; eta gero, erabateko laguntza izan zen guretzat ezezagunak eta konplexuak ziren zenbait izapide egiteko orduan”. Hain zuzen, Hurkoarekiko harremana ez da eten prozesu judizialaren ostean; izan ere, urtero, Manuelek eta Encarnak Hurkoari eramaten dizkiote epaitegian aurkeztu behar diren Esperanzaren kontuak, arrebaren baliabide ekonomikoak behar bezala kudeatzen ari direla bermatzeko.

“

Oso urte gogorrak izan dira, eta aintzakotzat ez gintuztela hartzen sentitzen genuen

“Kontuzko gaia da —baieztatzen dute—. Oso urte gogorrak izan dira eta aintzakotzat ez gintuztela hartzen sentitzen genuen. Arazoak izan ditugu, baita familiarekin inongo loturarik ez duten pertsonekin ere, zeinek zalantzan jarri baitute egiten ari ginena, geure intereserako ari ginela pentsatuz, baina guk justu kontrakoa egin dugu. Pertsona baten tutoretza geure gain hartzea erantzukizun handia da”. Gaur egun, Esperanzak bere etxebizitza mantentzen du, eta “astean behin bere etxera eramaten dugu, bere gauzak ikusten ditu, bere oroitzapenak, landareak ureztatzen ditugu, berekin bazkaltzera irteten gara, erosketak egiten ditugu...”

Bizi duten esperientziak beren etorkizuna prestatzera eta autotutoretzako dokumentuak sinatzera eramanez ditu Manuel eta Encarna; dokumentu horietan jasotzen dira beren nahiak, baita zer egitea nahi duten ere uneren batean erabakitze gaitasunik ez balute. “Ohartzen zara zu ere egoera horretan egon zaitezkeela, eta adineko pertsonentzat gomendagarria iruditzen zaigu hori guztia antolatzea eta tutorea aukeratzea, noizbait beharrezkoa balitz ere”.

## ARRETA TUTELARRA

### ERABILTZAILEEN PROFILA

- 544** Artatutako pertsonak
- %47** Emakumezkoak
- 139** 80 urtetik gorakoak
- 179** 60-79 urte artekoak
- 109** 50-59 urte artekoak
- 106** 30-49 urte artekoak
- 10** 29 urtetik beherakoak

JARDUERA

## Hurkoak Irunen egindako plan balantze positiboa

# HAUSKORTASUNA

**H**urkoak garatutako proiektu horren helburua da gizarte-baliabide eta -zerbitzuak iristen ez zaizkien pertsona hauskorrak identifikatzea, mendekotasun aurreko egoeran daudenak, haien ongizateari laguntzeko eta narriadura-egoerak prebenitzeko. Beren bizitza modu autonomoan normal gauzatzeko zailtasunak izaten hasi diren pertsonak dira, horrek kalteberatasun-egoeran jartzen ditu, eta zatitze-, baztertzeko edo mendekotasun-arriskua izan liteke egoera horren ondorioz.

Era berean, programa horrek hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arretarako eta haien erantzuteko eredu bat zehaztu nahi du, eta herritarrak sentibilizatu, egoera horretan dauden pertsonak hautemateko eta haien laguntzeko elementu garrantzitsu bihurtzeko daitez.

Plan pilotuan parte hartzeko gonbita jaso duten pertsonen identifikazioa Udaleko gizarte-zerbitzuen laguntzarekin egin da. Haien borondatezko baimena lortu ostean, Hurkoak haien benetako egoera baloratu zuen, Arreta Indibidualizatuko Plan bat garatu ahal izateko parte-hartzaile bakoitzarentzat; plan horrek lau esku-hartze eremu nagusitan sailkatzen ditu jarduerak: soziala, osasun-arloa, juridikoa eta ekonomikoa.

Plan pilotu horren garapenean Hurkoako profesionalaketa boluntarioek hartu dute parte, etengabe koordinatuta oinarritzko gizarte-zerbitzuekin eta Irungo Udaleko Bakartze Programarekin. Gainera, azpimarratzekoak dira plan horretan parte hartu duten beste zenbait

Hurkoa eta Irungo Udala urtebetez lankidetzan aritu dira hauskortasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko plan pilotu batean. 68 eta 95 urte bitarteko 18 pertsonak hartu dute parte modu boluntarioan ekimen horretan; hari esker, beren bizitzako zenbait alderdi hobetu ahal izan dituzte, hala nola etxebizitzaren egoera, kudeaketa ekonomikoa, higiena eta osasun-egoera, botiken kudeaketa farmazietatik, eta gizarte-eta laguntza-erreferentzia bat izatea bakardade-egoerak arintzeko. Bi erakundeek lankidetzan berritzea erabaki dute, Euskadin aitzindaria den proiektu bat garatzen jarraitzeko.

JARDUERA

## pilotuaren

pertsona eta erakunde ere: Bidasoako ESI, Irungo farmaziak, Cáritas, banku-kudeatzaileak, parrokiak, adineko pertsonen zentroak...

Zentzu horretan, Hurkoak eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak lankidetzan-hitzarmena sinatu dute; haren bidez, Gipuzkoako farmaziek bat egiten dute Hurkoaren hauskortasun-programarekin. Hala, lehen aldiz bisitatu dituzte Gipuzkoako farmazialariek erabiltzaileak beren etxeetan farmazia-zerbitzuak emateko.

### Balorazioa

Urtebetean gauzatu den esperientzia honen balorazioa oso positiboa da. Parte-hartzaileei egindako galdeketez erakutsi dute esperotakoaren betetze-maila erabatekoa izan dela % 37,5en, eta, handia % 50en.

Parte-hartzaile guztiak behar-egoera batetik (Irungo gizarte-zerbitzuek hauteman dute) arreta-egoera batera igaro dira.



**Ander Amunarriz**  
Hurkoa

Programa honetan parte hartzea proposatu diegun pertsona gehienak mesfidati agertu dira hasieran, isolatuta eta erreferentzia-laguntzarik gabe zeudelako, nagusiki.

Programan parte hartu duten profesionalen % 75ek positibotzat jo dute ekimena eta % 62,5ek ezinbestekotzat jo dute. Programako parte-hartzaileek eta erabiltzaileek oso positibotzat jo duten beste alderdi bat bakardadea arintzea da, laguntza, konpainia eta babesa emanez, eta arlo horretan Hurkoako langileek eta boluntarioek duten parte-hartzea azpimarratzen dute.

Azken hiru urteetan, Hurkoak hauskortasunari buruzko azterketa sakona egin du Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politikako Sailaren eta Espainiako Cáritas elkartearen laguntzarekin, hauskortasun-egoerei erantzuteko osoko plan bat diseinatzen laguntzeko. Plan horrek argi zehaztuko ditu helburuak eta esku-hartzearen jarraibideak, Euskal Herrian zer baliabide dauden aztertuko du, baliabide horietara iristea erraztuko du eta koordinatu egingo ditu, eraginkorrakoak izan daitez.



**Sergio Corchón**  
Irungo Udala  
Gizarte Ongizateko  
Ordezkarria

Esku-hartze batez gainera, gizarte-langile baten bidez etxean bertan laguntza eskaintzen duen tresna bat da. Kalteberatasun-egoera handienak dituzten pertsonak eskura dituzten laguntzen sarea indartzen du.

## HAUSKORTASUNAREN ARRETA

### ARTATUTAKO PERTSONAK

- 39** Ohiko arreta
- 40** Aldian behingo arreta
- 16** Aholkularitza



**Erabiltzailea**  
Irun

Nire bizi-kalitatea hobetu du eta autonomoago sentitzen naiz mugitzeko eta izapideak egiteko. .  
Lasaigarri bat suposatzen dit, kobratzen nituen laguntza ekonomikoak ordenatzeko aukera eman dit eta.



## PROFESIONALAK



**VIOLETA  
BARQUÍN**

“Nuestra Señora de las Mercedes” eguneko zentroan aritzen da erizain-lanetan. Bere eguneroko lanean, erabiltzaileen osasunaren etengabeko jarraipena egiten du eta haien familiei ere behar besteko laguntza ematen die zentrorra joaten diren pertsonak aukera izaten dezaten ahalik eta denbora gehiena egiteko beren etxeetan. Hori guztia bizikaltatea eta autonomia mantentzen saia daitezela lagunduz egiten du.

Gizarte-langile modura egiten du lan Arrasaten, artatutako pertsonen eta horien familien behar sozialei ahalik ondoen erantzuteko xedez. Egunerokoan, pertsona askok laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko; beste batzuek, jarduera instrumentaletarako soilik behar dute laguntza. Horretarako, “Hurkoa erakundetik laguntzaileak kudeatzen ditugu, medikura laguntzen diegu, senideei informazioa ematen diegu... Eta eginkizun horretan guztian, niretzat gauzarik onena da pertsonak ezagutzeko eta pertsona horiekin denbora pasatzeko aukera ematen didala”.



**LEIRE  
AZKARRAGA**

Gizarte-langilea eta familia-taldeko koordinatzailea da, non lehenengo harreran familiei harrera egiteaz eta diagnostikoak, balorazioak eta txosten sozialak egiteaz arduratzen baita. Era berean, zuzenean zenbait kasu ditu bere gain gizarte-erreferentzia gisa tutoretza-arloan. Bere jardueran, familien zalantzak argitzen ditu, aholku ematen die gaitasunaren aldatetaren prozedurari eta tutoretza egikatzeari buruz eta kasu bakoitzean egokitasunari buruz. Bere lanaren alderdirik onena etengabe aberastea da, nola arlo pertsonalean hala profesionalean, konpromiso zorrotza hartua duen jendez inguratuta.



**AMAIA  
BAREA**

Asteburuetak arduraduna da “Nuestra Señora de las Mercedes” eguneko zentroan. Bere kezka nagusia asteburuan eguneko zentrorra joaten diren pertsonak beren behar guztiak aseak izan ditzaten behar diren egiteko guztiak koordinatzea da.

Horretarako, asteburuetan lan egiten duten gainerako profesionalekin batera, erabiltzaileen gustuen eta beharren arabera zerbitzua ematen saiatzen da.

Beretzat garrantzitsuena erabiltzaileak eta haien familiak pozik egotea da.



**CARLA  
PEREIRA**

## BOLUNTARIOAK

### PRESTAKUNTZA ETA BOLUNTARIOAK



**HILARIO SEIN**  
Hurkoako boluntarioen  
arduraduna

**P**restakuntza boluntarioen eskubide bat eta haiek parte hartzen duten erakundearen betebeharrak bat dela alde batera utzita, Hurkoako boluntarioen taldean ezinbesteko konpromisotzat hartzen dugu prestakuntza.

Boluntarioak egin beharreko jardueran gaitzeaz gainera, boluntarioei erakundearen integratuago, inplikatuago eta konprometituago sentitzen lagunduko dien bitartekoa da prestakuntza.

Era berean, beren esperientziak, eskaerak eta beharrak erakundearen beste pertsona batzuekin partekatzeak aukera da, eskuarki beren egitekoa banaka gauzatzen baitute laguntzen dieten pertsona horiekin.

Zentzu horretan, “bizitzako azken etapa” nola kudeatu behar den izango da prestakuntzan datorren urterako kontuan hartu den erronka, non boluntarioei bizitzaren amaierako etapa zail horretan erabiltzaileari arreta ematen eta laguntzen irakatsi nahi baitzaie, baita arlo pertsonalean emozio biziz betetako etapa horri aurre egiten eta doluaren ondorioak arintzen ere (laguntza emozionala, hirugarrenekin komunikazioa, horri buruz hitz egitea, eta abar); izan ere, boluntarioaren eta erabiltzailearen artean sortu den afinitatearen arabera, ondorioak izan litzake boluntarioetan, pertsona diren aldetik.

## “Funtsezko egitekoa gure gizartean”

**ÁLVARO MOSQUERA**

Álvaro Mosquera bioetiko, psikopedagogo eta gizarte-hezitzailea da. Aspaldiko fundazioko zerbitzu psikosozialaren eta Portugaleteko Udaleko gizarte-zentron arduradun da, eta Hurkoarekin lankidetzan aritu da boluntarioak prestatzen. Irakasle gisa ibilbide oparoa du, artikulua eta argitalpen asko egin ditu, eta zahartze aktiboarekin loturiko askotariko ekimen eta jardueretan parte hartzen du.



**Zer egin behar da eta zer ez beste pertsona bat artatzen denean?**

Behar besteko konpromisoa, erantzunkidetasuna eta prestasuna hartu behar dira pertsonari “ongia egiten” laguntzeko, hura “dena” eta bizitza osoan izan dena kontuan hartuta “ondo zaintzeko”, haren biografia, bizi-historia, balioak, gustuko gauzak, zaletasunak eta abar kontuan hartuta, pertsona hori bere duintasunaren arabera bizi eta hil dadin.

**Zein da laguntza behar duen pertsona batekin izan daitekeen harremanik onena?**

Galdera horri erantzuteko, Xabier Etxebarria irakasle jauna aipatuko dut, zeinak ondo zaintzeko eta bere desberdintasun horretan besteari duintasuna eta autonomia aintzatesteko landu beharreko zenbait bertuteri buruz hitz egiten baitu: egiazkotasuna, tolerantzia, umiltasuna, zuhurtzia eta doakotasuna.

**Zer trebakuntza landu ditu Hurkoako boluntarioekin?**

Hurkoako boluntarioek pertsonen laguntzen duten esperientzia eta

prestakuntza zabalabari abiapuntu hartuta, tratua ondo sustatzea hartu dugu ardatz: pertsona ezagutuz, haren autodeterminazioa sustatuz, pertsonari bere eskubideak ezagutzen eta baliatzen lagunduz, informazioa behar bezala emanez, haren iritziak entzunez eta iritzi horiek aintzatetsiz. Hori guztia arretaredu zuzenagoak, pertsonarentzat onuragarriagoak, arreta pertsonalizatua ardatz dutenak (non pertsona bakoitza bakarria baita), arreta malgua, integratua eta integratua, ikuspegi komunitarioa, kalitatekoa eta inklusiboa duena, oinarri hartuta.

**Nola baloratzen duzu Hurkoako boluntarioen egitekoa?**

Funtsezko egitekoa dute gure gizartean, beren denbora partekatzeak eta emateko eskuzabaltasun eta doakotasun horretatik, emateko eta jasotzeko bi noranzkoko jarrerarekin, non egiteko solidario bat sortzen baitute, laguntzen duten pertsonaz arduratzen dena eta hura ordezkatzeko eta babesten duena. Haiek trebakuntzan azpimarratzen zuten moduan, “ez da aski asmo onak izatea; ondo zaintzen ere jakin behar dugu”.

## TESTIGANTZA



**XABIER ANDONEGUI**

Donostiako Elizbarrutiko Pastoralta  
Sozialeko eta Misioetako bikarioa

Xabier Andonegui Mendizabalen iritziz, Hurkoaren egiteko sozialak helburu oso beharrezkoak betetzen ditu sozialki inguratzen gaituzten bakardade-, hauskortasun- edo tutoretza-egoeretan. “Familiek gisa honetako zerbitzuen behar handia dute, bizikidetzaz- arazo larriak eragin ditzaketen eta eragiten dituzten arazo asko arintzen baitizkiete”.

Era berean, nabarmentzen duenez, “erabiltzaileen beharrak asetzeaz gainera, familiek kudeatzen zaila den laguntza- eta arreta-erreferentzia bat izatea eragiten du, gizarte osoari zerbitzua ematen dio eta zaintza egokia gizatasun-irakaspen bihurtzen du”.

Etorkizunari dagokionez, haren iritziz, “guztiok eboluzionatu

behar dugu, dauden behar pertsonal eta sozialetara egokituz. Gakoa bakarrik dauden adineko pertsonen eta behar funtzionalagoak dituztenen “zaintzarekin” zer gertatuko den aztertzea da. Zentzu horretan, interes handia dugu bakardadeari eta hauskortasunari buruzko ikerketa eta lanetan”.

Andoneguik Hurkoak mendekotasunik handieneko pertsonen arretan duen egitekoa azpimarratzen du, borondate librea galtzeari dagokionez, baita familiei ematen dien laguntza, hauskortasunaren inguruan duen interesa, ekimen berriak bilatzea eta gizartean garrantzitsuak diren eta askotan ezkutuan dauden gaiak jorratzea ere”.

## TESTIGANTZA



**VALENTINA MONTERO**

Notarioa

Valentina Monteroren iritziz, “zahartzaroan sartzeko aldaketa handia dakar, eta prestatuta egon behar da aldaketa horretarako. Baina, bizitza luzeago baten alderdi positibo eta aberasgarri guztiez gozatzeko, ezinbestekoa da gure etorkizunari aurrea hartzea, zer arazo izan ditzakegun jakiteko aurrea hartuz”. Aurrea hartze horrek “bizitzako etapa horretan gure bizi-proiektuaren gidari izaten jarraitzea esan nahi du; proiektu horretan borondate pertsonalaren autonomiak gailendu behar du eta hura garatzen lagunduko duen prozesu sozial baten babesa izan behar da”.

“Zahartzaroaren eta bizitzaren amaieraren plangintza aurreratutak prozesu zabala izan behar du eta azken etapa

horri buruzko pentsamendu- eta elkarriketa-lan batetik sortu behar du, banakoaren balio pertsonalak kontuan hartuta eta pertsonaren, haren familiaren eta parte hartzen duten erakundearen eta profesionalen artean adostua eta gauzatua izan behar du”.

Horretarako, Monterok adierazten duenez, “gure ordenamendu juridikoan hiru tresnak ematen digute, borondatearen autonomiaren esparruan, gaitasuna duen pertsona batek gaitasunik ez duen egoeretan hura babestea erraztuko diguten aurreikuspenak zehazteko aukera, bakoitzaren nahiak eta bizi-balioak errespetatuz: aurretiazko borondateen dokumentua, autotutoretza eta prebentziozko ahalordetzea”.

# Hurkoak bere esperientzia helarazten die Donostia Gutune



Adineko pertsonen eta Alzheimerdun pertsonen eta haien zaintzaileen eskubideen "Donostia Gutunak" Aubixa Fundazioak eta AFIGI elkarteak sustatutako parte hartzeko prozesu ireki baten emaitza dira. Hamar hilabetez, milaka pertsona eta erakunde sozialek hura idazten parte hartzeko aukera izan dute.

Hurkoak bi dokumentuen gogoetan eta lanketan parte hartzeko aukera izan du, adineko pertsonen eta gaixotasun mentalak dituztenen zaintzan eta arretan duen esperientziaren bidez.

Bostehun lagunek baino gehiagok hartu zuten parte joan zen urrian adineko pertsonen eta dementzia dutenen eskubideak aztertzeko antolatutako biltzarrean. Ekimen horren eta Donostia Gutunak argitaratzearen helburua gizarte osoa erronka horretan inplikatzeko da. Hori azpimarratu zuten biltzarreko parte-hartzaile guztiek, hala nola Juan Luis Arsuaga antropologoak, Garbiñe Biurrun magistratuak, Arantxa Urretabizkaia idazleak eta José Félix Martí Masso eta Pablo Martínez Lage neurologoek, baita Alzheimerrek erasandako pertsonen eta haien senitartekoen ere.

Martín Auzmendi abokatuak, zeina gutunak idazteaz arduratu den batzordeko koordinatzaile baita, hala azaldu zuen: "pertsonen, adinekoak izate hutsagatik, ez dituzte gainerakoekiko desberdinak diren eskubideak izan behar". Era berean, gogorarazi zuenez,

"ardura ez dagokie administrazio publikoei soilik; gizarteak egiteko garrantzitsua du eta gutun horiek gizarteak dagokion egitekoa bete dezan deialdi bat dira".

Koldo Aulestia Afagiko lehendakariak nabarmendu zuenez, gutun horiek "ahotsa eman diete ez dutenei; izan ere, pertsona bati desgaitasuna iristen zaionean, gizarteak berak kentzen dio ahotsa".

Arantxa Urretabizkaia idazleak hala adierazi zuen: "adineko pertsonak umetzea eragotzi behar dugu, gure ahalduz babestu eta inori ez utzi guri dagozkigun erabakiak hartzen".

Hurkoaren konpromisoa adineko pertsonen eta dementzia dutenen eskubideak garatzeko lanean jarraitzea da.

## Hurkoak Azkoitira eramán ditu bere hauskortasun- eta tutoretza-programak

Hurkoak iazko urritik Azkoitian duen egoitza berria herriko zazpi bizilaguni laguntzen ari da. Udalak utzitako bulegotik, hauskortasun-egoeran dauden bost pertsonari eta tutoretza-zerbitzuaren laguntza jasotzen duten beste biri ematen zaie arreta.

200 pertsonatik gora izan ziren Azkoitian Hurkoaren aurkezpenean. Herriko bizilagunak, udal-ordezkariek, gizarte-zerbitzuetako arduradunak, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofiziala eta hirugarren sektoreko erakundeak izan ziren ekitaldian, non José Félix Martí Massó neurologoak hitzaldi bat eman baitzuen bakardadeak oroimen-galerrako arrisku-faktore gisa duen garran-



Ordezkaritza instituzional zabala izan zen Azkoitian Hurkoaren aurkezpenean.

tziari buruz. Ekitaldian, era berean, ordezkari itzuzional zabala izan zen, eta ordezkari horren buru izan ziren Eider Mendoza, Gipuzkoako Batzar Nagusien lehendakaria, Maite Peña, Gizarte Politiketako foru-diputatua, Lide Amilibia, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordea, eta Javier Zubizarreta, Azkoitiko alkatea. José Luis de la Cuesta Hurkoako pre-

sidenteak egoitza berri horren garrantzia azpimarratu zuen, gure laguntza behar izan dezaketen pertsonengandik hurbilago egoteko aukera ematen baitigu. "Hurbiltasuna —adierazi zuen— ezinbestekoa da gure lana gauzatu ahal izateko eta hauskortasun-egoeran edo babesik gabe egon daitezkeen pertsonen errealitate berriak hautematea errazteko".



Javier Zubizarreta, Azkoitiko alkatea

### "Bakardadea adineko pertsonen jabetzea saihestu behar da"

**Lehen hilabete hauen ondoren, nola ikusten duzu Hurkoa Azkoitian egiten ari den lana?**

Oso modu positiboan. Une oro argi geneukan Hurkoa aliatu bikaina izango genuela, eta orain, haren zerbitzuak abian dauden honetan, ez daukat eskerrak eman eta nire poza adierazi besterik, guztion artean Hurkoa Azkoitian izatea bideratzeagatik. Adineko pertsonen laguntza eta baliabideak izan ditzaten hartua dugun konpromisoaren beste adierazle bat da. Bakardadea adineko pertsonen jabetzea saihestu behar da, bakardadea bizirik hiltzea baita.

**Tokiko erakundeek zer neurri har ditzakete hori saihesteko?**

Garrantzitsua da adineko pertsonenganako konfiantzazko, errespetuzko eta babes beteko giroa sortzen lagunduko duten eremuak eta testuinguruak sortzea. Denbora berdin

igarotzen da guztiontzat, baina iruditzen zaigu inoiz ez garela egongo "hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsonatzat" hartuko gaituzten egoera batean. Gizarte geroz eta indibidualistago batean egonik, uste dut tamalez ez daukagula adineko pertsonenganako behar besteko sentikortasuna, baina landu egin behar da. Azkoitian, Hurkoaren egoitza irekitzeaz gainera, beste pauso garrantzitsu bat eman dugu boluntario-taldeari esker. Azkoitia Lagunkoia ekimena da, zeinak helburu baitu Azkoitia adineko pertsonentzako udalerrri lagunkoi bat izan dadin lan egitea.

Era berean, berriki hitzarmen bat sinatu dugu Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, etxeko laguntza-zerbitzuaren erabilzaileek behar bezala har ditzaten botikak. Urrats txikiak dira, helburu bera lortzera bideratuak: adineko pertsonen ongizatea eta babesa.

## Urrezko

Iaz, Hurkoak bere aintzatespen nagusia, “Urrezko H”-a, eman zien bi pertsoneri, zeinek zenbait esparrutatik Hurkoaren jarduerari modu garrantzitsuan lagundu baitiote, batetik, eta, bestetik, zahartzaroari eta narriadura kognitiboan medikuntzak izan duen aurrerapenari buruz gizartea sentsibilizatzen lagundu baitute:  
**Josu Ormazabal Gurrutxaga**  
**eta José Félix Martí Massó.**

“Urrezko H”-a beren jarduerarekin Hurkoaren egitekoa sustatzen edo errazten laguntzen duten pertsoneri Hurkoak ematen dien aintzatespenik handiena da.

Haren bidez, hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adineko pertsonen edo gaixotasun mentalak dituztenen zaintzan eta arretan konpromiso handiz parte hartzen duten pertsonen egindako lanari dion errespetua eta esker hona bistaratu nahi ditu Hurkoak.

Hurkoaren 25. urteurrenaren harira 2015ean sortu zene-  
 tik, honako hauek jaso dute Urrezko H-a: Aurora Elosegui magistratuak, zailtasunak edo desgaitasunak dituzten pertsonen tutoretzaren eta babesaren inguruko gaietan espezializatutako epaitegi batean egindako lanagatik, Evelia Canterak, Hurkoaren jardura sustatzeagatik eta Karitateko Alabek, zeinak “Nuestra Señora de la Mercedes” eguneko zentroaren sortzaile baitira.



**Josu Ormazabal**

Josu Ormazabal oso berezia da Hurkoan. Konpromiso handiko boluntarioa izateaz gainera, azken urteetan Hurkoako diruzaina izan da, baita Hurkoa Zainduzeko Presidentea ere.

Haren ardurak, zorrotzasunak eta umoreak arrasto ahaztezina utzi dute harekin lan egiteko aukera izan duten pertsona guztiengan.

Albo batera geratzea eta beste pertsona batzuek Hurkoaren etorkizunari buruz ideia berriak ematea erabaki ostean, Hurkoaren jarduerak garatzen egindako lanak Urrezko H-a lortzeko merezimenduak eman dizkio. Aintzatespen hori ustekabeen eta pozik hartu zuen, Hurkoa osatzen duten pertsona guztien maitasun- eta estimu-adierazpenen artean.



**José Félix Martí Massó**

José Félix Martí Massó neurologorik entzutetsuenetariko bat da. Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Neurologia Zerbitzuko buru eta UPV-EHUko Neurologiako katedradun izan da. Ikerketa-lan handia egin du nerbio-sistemaren eta gaixotasun neurodegeneratiboen funtzionamendua hobeto ulertzeko. Neurologo-belaunaldi askotan egin duen trebakuntza-jarduerak eta garuneko endekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonekin eta haien senitartekoekin duen konpromisoak osatu dute bere jardura. Esker onez jaso zuen “Urrezko H”-a, eta adierazi zuen Hurkoarekin lankidetzan aritzeko prest dagoela bere esperientziari dagozkion alderdietan.